

FUNTSEZKO JARDUERAK

- Pultsera egin baino lehen ekoizleak bilatu behar dira:
 - Informatikan aritzen den enpresa bat da, zehazki pultserak egiten dituzten enpresak oso baliagarriak izango litzateke.
- Pultserak edukitzean, salduko diren lekuak, hauek dira:
 1. Tabernetan eta elektronika dendetan
 2. Guk alokatuko ditigun postuetan herriko jaietan
 3. Gure web orrian, profesional batek diseinatuko duela
- Aplikazio bat sortu behar dugu pultserak aurkitzeko.
 - App horretan, zure pultseraren kodigoa sartuz zure laguna, semea edo aurkitu nahi duzun pertsonaren pultseraren lokalizazioa aurkituko duzu.

NIMMO pultsera funtziona dezan badaude lehendik egin behar diren beharrezko hainbat jarduera. Hasteko, ezinbestekoa da pultsera egiteko ekoizleak bilatzea, alde batetik informatika enpresa baten zerbitzua kontratatzea, pultseraren alde teknologikoa garatzeko (chip-a), eta behin hori burututa pultseren uhalak egiten dituen enpresa baten subkontratazioa.



Hori guztia bukatuta edukitzean, beste enpresa bat kontratatu beharko dugu pultseren aplikazioa gure gustura diseina dezan. Horretarako, pultserak kodifikatuak eduki beharko ditugu, aplikazioa eta pultsera lotetsiak egon dezaten. Ondoren, app-store eta play-storeren bidez app-a bezeroei eskuragarri jarriko diegu.

Behin aplikazioa sortuta, bezeroak arazoak eduki ditzakete, horregatik, web gune bat sortuko dugu. Web gune horretan gure datuak eskuragarri izango dituzte, eta pultseren funtzionamendua azalduta agertuko da, honekin arazoak edukiko balituzte, guri zuzenean idazteko aukera izango dute bezeroek, gure gmailaren bitartez. Aipatu behar webgunean ere pultsera erosteko aukera egongo dela.

Honetaz gain, sare sozialak sortuko ditugu (Instagram, Twitter eta Tik Tok), eta hortik NIMMO pultserei publizitatea egingo diegu.